



Agenteen profilak **2015** arteen eta kultura industrien estatistika

2017ko ekaina



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Agenteen profilak _2015 arteen eta kultura industrien estatistika

Aurkezpena _3

1_Agenteen profil azterketa _4

- 1.1. ARTE ESZENIKOETAKO EKOIZLEAK _4
- 1.2. ARTE ESZENIKOETAKO PROGRAMATZAILEAK _5
- 1.3. ARGITALETXEAK _6
- 1.4. LIBURU-DENDAK _7
- 1.5. MUSIKA PROGRAMATZAILEAK _7
- 1.6. DISKO INDUSTRIA ETA DISKO-SALTOKIAK _9
- 1.7. IKUSIZKO ARTEETAKO GALERIAK ETA ERAKUSTARETOAK _10
- 1.8. IKUS-ENTZUNEZKO INDUSTRIA _11

2_Taula eranskina _12

- 2.1. ARTE ESZENIKOETAKO EKOIZLEAK _12
- 2.2. ARTE ESZENIKOETAKO PROGRAMATZAILEAK _13
- 2.3. ARGITALETXEAK _14
- 2.4. LIBURU-DENDAK _15
- 2.5. MUSIKA PROGRAMATZAILEAK _16
- 2.6. DISKO-SALTOKIAK _19
- 2.7. IKUSIZKO ARTEETAKO GALERIAK ETA ERAKUSKETARETOAK _20
- 2.8. IKUS-ENTZUNEZKO INDUSTRIA _21

—

Aurkezpena

Arteei eta Kultura Industriari buruzko 2015ko **Estatistikaren emaitzek** hainbat analisi-maila egiteko aukera ematen dute. Horretarako, kontuan hartu da EAEko¹, kultura-esparruetan diharduten 629 agenteren buruzko informazioa. Hala, sektoreko txostenek sektore bakoitzari buruzko datuak jasotzen dituzte ahalik eta modu zehatzenean. Bestalde, ikuspegiak txostenak interpretazioa egiteko aukera ematen digu agente guztien ustiapenetatik abiatuta, sektore guztiaren gaineko ikuspegia ardatz hartuta.

Txosten honek diru-sarreraren arabera eragile profilak erakustea du helburua. Txostenak bi zati ditu. Lehenengo zatian, 2015. urtean profil bakoitzak dituen ezaugarri nagusien azterketa egiten da. Informazio grafikoa ere erabiltzen da, datuak errazago irakur daitezela.

Bigarren zatian, berriz, 2011-2015 epealdiko bilakaera taulen eranskina gaineratu da, serie historikoei dituzten xehetasunak aurkezteko asmoz.

¹ Kultura-sektore bakoitzeko estatistikaren **berariazko argitalpenean** zehazten dira erroldan sartzeko kontuan hartutako irizpide metodologikoak eta landa lanaren fitxa teknikoak.

1 _Agenteen profil azterketa

1.1 _Arte eszenikoetako ekoizleak


2015ean, arte eszenikoetako 76 konpainia sartu dira estatistikan: 63 antzerki-esparrukoak eta 13 dantza-esparrukoak.

Arte eszenikoetako ekoizleen % 65,8k 100.00 € baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzte eta % 15,8k 100.000 eta 250.000 € bitartekoak. Datu horiek sektorea konpainia txikiek osatzen dutela baieztatzen dute. Gainerako % 18,4ak 250.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzte. Hala ere, xehetasunez aztertzen badira eragile hauek dituzten diru-sarrerak, ikus daiteke milioi erditik gorako diru-sarrerak dituzten 7 konpainien eskuetan gelditzen dela guztizko diru-sarrearen % 49,4a. Hau da, sektorearen diru-sarrearen erdia sektore osatzen duten 76 konpainietatik 7 eragileren eskuetan gelditzen dela; eta 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten 50 konpainiek sektorearen diru-sarrearen % 17,2 baino ez dutela osatzen.

Diru-sarrearen kasuan ez bezala, langileen kasuan, konpainia txikienak dira langile gehien metatzen dituztenak. Enpleguaren kasuan nabarmentzekoa da 10etik 6 langile 250.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten konpainiek kontratatzen dituztela. Hala ere, batz besteko kontratazioak aztertzen badira konpainiaren tamainaren arabera, diru-sarrera handien dituzten 7 enpresek batz bestea 7,6 langile kontratatzen dituzte eta diru-sarrera gutxien dituzten 50 konpainiek bakoitzeko 1,5 langile batz bestea (ikus emaitzak eranskinetik > **14.irudian**).

Jarduerari dagokionez, nabarmentzekoa da ekoiztitako ikuskizunek agenteek duten pisuaren antzeko banaketa dutela. 250.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten agenteek, sektoreko % 80k, 2015eko ekoizpenen % 70a osatzen dute.

1. irudia. Arte eszenikoetako ekoizleak, diru-sarreraren, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren, lanaldi eta urte osoko langile baliokideen eta ekoizpenen arabera. 2015



■ 100.000 € baino gutxiago
 ■ 100.000 €-tik 250.000 €-ra
 ■ 250.001 €-tik 500.000 €-ra
 ■ 500.000 € baino gehiago

1.2 _Arte Eszenikoetako programatzaileak


2015ean, arte eszenikoetako 117 programatzaile aztertu dira: % 70 aretoak (82 eragile) eta gainerakoak jaialdiak (35 eragile).

2013an ikusten zen bezala, aretoen erdiek (% 51,2) 100.000 € baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzte, baina sektorearen guztizko diru-sarreraren % 9,5 baino ez

dute batzen. Sektoreko diru-sarreraren ia erdia lau areto handik (milioi batetik gorako diru-sarreradunak) bereganatzen dute; diru-sarreraren % 49,9 eta ikusleen % 38,8 (aurreko edizioan baino 15 puntu gutxiago).

Bilakaeraren ikuspuntutik, eta ikusleen arabera aretoen profilak kontuan hartuta, nabarmentzekoa da ugaritu egin direla 10.000 eta 30.000 ikusle inguru erakartzen dituzten aretoak. Alegia, 2013an baino bi halako dira (eranskineko **>17.irudia**).


2. irudia. Arte eszenikoak programatzen dituzten aretoak, diru-sarrerak eta ikusleak, guztizko diru-sarrera tarteen arabera. 2015.



■ 100.000 € baino gutxiago
 ■ 100.000 €-tik 250.000 €-ra
 ■ 250.001 €-tik 1.000.000 €-ra
 ■ 1.000.000 € baino gehiago

2013an, diru-sarreraren arabera eginiko jaialdien banaketari dagokionez, nabarmena zen diru-sarreretan izandako jaitsiera: 2013an hiru jaialdik baino ez zituzten izan 250.000 eurotik gorako diru-sarrerak, 2015an, ordea, era honetako eragile kopurua bikoiztu egin da. 2015ean 6 dira 250.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituzten jaialdiak, mota honetako eragileen % 79,0a. Beste muturrean, 100.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten eragileak, (eragileen % 60,0a), diru-sarrera guztien % 9,3a metatzen dute. (ikusi bilakaera datuak eranskineko > **18. irudian**).

3. irudia. Arte eszenikoetako jaialdiak, diru-sarrera tartean eta guztizko diru-sarreraren ehunekoaren arabera. 2015




■ 100.000 € baino gutxiago
 ■ 100.000 €-tik 250.000 €-ra
 ■ 250.000 € baino gehiago

1.3 Argitaletxeak

100.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten argitaletxeen pisuaren igoerak baieztatzen du 2013an nabarmen ikusi zena: sektoreak bizi dituen zailtasunak. Hala ere, nabarmendu beharra dago 2013tik hona langileen batzuetan bestekoak izandako igoera xumea, 2011ko kopuruetara itzuliz. (ikusi bilakaera datuak eranskineko > **19. irudian**)

Gainera esan beharra dago, diru-sarrera gehien dituzten agenteen taldeak (1.000.000 eurotik gorako diru-sarrerak) pixka bat gora egin duela, 8 argitaletxetik 11ra igaro da eta. 11 argitaletxe horiek sektorean salmenta bidez ateratzen diren diru-sarreraren % 86,3a biltzen dute eta, batzuetan beste, agenteko 9,6 langile dituzte.

4. irudia. Argitaletxeak, liburu-salmentagatiko diru-sarreraren eta lanaldi eta urte osoko langile baliokideen arabera. 2015.




■ 100.000 € baino gutxiago
 ■ 100.000 €-tik 250.000 €-ra
 ■ 250.001 €-tik 500.000 €-ra
 ■ 500.001 €-tik 1.000.000 €-ra
 ■ 1.000.000 € baino gehiago

1.4 Liburu-dendak


2015ean, 109 dira sektorea eratzen duten agenteak, horietatik 19 kateetako kide dira eta 90 liburu-denda independenteak. Nabarmendu beharra dago, dagoeneko 2013an ikusi zen bezala, kateetako liburu-dendek galtzen ari diren pisua, bai agente kopuruari dagokionez, bai liburu-salmentagatik dituzten diru-sarrerari dagokionez, zein enpleguari dagokionez: liburu salmentagatik sektorearen dirusarreraren % 58,3 2013. urtean eta 2015ean % 49,1; 2013an zuten enpleguaren % 45,2a 2015ean % 36,4ra jaitsi da (ikus eranskinaren > **20. irudian** emaitza zehaztuak).

2015ean, diru-sarreraren arabera sailkapena 2013ko balioetatik hurbil mantentzen da. 2013an nabarmentzen zen dimentsio handieneko establezimenduen jaitsiera diru-sarreraren pisan, ez da hain agerikoa 2015ean; eta sektorearen diru-sarreraren ia % 50a metatzen jarraitzen dute (ikus datuak eranskinaren > **21. irudian**).

5. irudia. Liburu-dendak, tipologiaren, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta lanaldi eta urte osoko langileen baliokideen arabera.2015.



6. irudia. Liburu-dendak, diru-sarreraren eta liburu-salmentagatik diru-sarreraren arabera. 2015.



■ 250.000 € baino gutxiago
 ■ 250.001 €-tik 500.000 €-ra
 ■ 500.001 €-tik 1.000.000 €-ra
■ 1.000.000 € baino gehiago

1.5 Musika programatzaileak


Estatistikaren edizio honetan zuzeneko musika programatzen diharduten 121 agente sartu dira. Horien artean, 69 programatzaile publiko, 21 sustatzaile pribatu, 19 kontzertu areto, 3 orkestra eta 9 musika- eta txistulari-banda.

Programatzaile publikoak aztertzen baditugu, nabarmendu behar da 5 agentek (1.000.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten agenteak, % 7,2) biltzen dituztela diru-sarreraren % 53,8; baina, bestalde, 10etik 8k (% 84,1) 250.000

eurotik beherako diru sarrerak dituzte, eta hauek denen artean, guztizko diru-sarreraren % 31,1 biltzen dute.


Ikusle kopuruek joera desberdin samarra erakusten dute. 5 programatzaile handiek, diru-sarreraren erdia biltzen dutenak, ikusle guztien % 28,6 erakarri dituzte. 250.000 eta 1.000.000 euro bitarteko diru sarrerak dituzten programatzaileak (% 8,7) dira ikusle gehien erakartzen dituztenak, guztizkoaren % 37,0.

7. irudia. Programatzaile publikoak, diru-sarrera tartean, guztizko diru-sarreraren eta ikusleen arabera. 2015.




2015ean, sustatzaile pribatuek irabazitako diru-sarreraren % 87,5a agenteen % 28,6k irabazia da.

8. irudia. Sustatzaile pribatuak, diru-sarreraren eta guztizko diru-sarreraren ehunekoaren arabera. 2015.



Kontzertu aretoetan ere joera bera nabari da, 4 aretotan biltzen da diru-sarreraren % 70,3. Areto txikienak sektorearen % 57,9 dira eta, sustatzaile pribatuetan ez bezala, diru-sarreraren ehuneko handiagoa biltzen dute: diru-sarreraren % 15,3 eta ikusleen % 63,2 (datuak xehetasunez ikusteko, eranskinaren > **26.irudia**).

9. irudia. Kontzertu-aretoak, diru-sarreraren eta guztizko ikusleen ehunekoen arabera.2015.




100.000 € baino gutxiago 100.000 €-tik 250.000 €-ra 250.000 € baino gehiago

1.6_Disko industria eta Disko-saltokiak

Estatistikaren edizio honetan disko industria 3 disko-etxek eta 21 disko-dendek osatzen dute. Datu babesa bermatu ahal izateko ezin izan dira disko-etxeen emaitza xehatuak aztertu.

Disko-saltokien inguruan, nabarmendu beharra dago, denda-kate baten partaide diren agenteak direla nagusi, sektorearen % 55,0 dira eta diru-sarreraren % 76,2 biltzen dute. Langile kopuruaren batz bestekoan ez dago ia alderik kate baten partaide diren denden (1,0 langile/establezimendu) eta independenteak (1,1 langile/establezimendu) direnen artean.

10. irudia. Disko-saltokiak, diru-sarreraren, guztizko diru-sarreraren ehunekoen eta langileen (lanaldi eta urte osoko langileen baliokideak) arabera. 2015.



Kateetako partaide diren disko-saltokiak Disko-saltoki Independienteak


1.7_ Ikusizko arteetako galeriak eta erakustaretoak

Diskoetxeekin gertatzen den bezala, sektore honetan ere ez dira produkzio zentroyen datuak ematen; tipologia honetan, agente kopurua bira jaitsi da eta datu babesa bermatzeko azterketatik atera egin behar izan dira produkzio zentroak. Hortaz, 2015. urtean ikusizko arteetako sektorean, galeriak 18 izan dira eta erakusketa-aretoak 30.

2013an bezalaxe, diru-sarreraren arabera sailkapena eginda, galerien sektorean establezimendu txikiak dira nagusi: galerien % 72,2k 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte eta enpleguaren % 55,9 biltzen dute. Hala ere, salmentetatik ateratako diru-sarreraren % 78,9a gainerako galeriena da, alegia, galerien % 27,8rena.


Erakusketa aretoen sareak bere egituran aldaketa xumeak izan ditu 2015ean. 2013. urtean areto txikiz (100.000 eurotik beherako aurrekontuarekin) osatua zen gehien bat (aretoen % 81,6). 2015ean, berriz, era horretako aretoen pisua % 66,7ra jaitsi da. Diru-sarreraren % 15a izaten jarraitzen badute ere, enpleguaren pisua jaitsi egin da % 44,8tik % 20ra eta hori langileen batz bestekoan islatzen da: 2013an 0,5 izatetik 0,3ra jaitsi da 2015ean. (ikusi emaitza zehatzak eranskinaren > **31. irudian**).

11. irudia. Galeriak, diru-sarrera tartean, guztizko diru-sarreraren eta langileen (lanaldi eta urte osoko langileen baliokideak) arabera. 2015.



■ 100.000 € baino gutxiago ■ 100.000 € baino gehiago

12. irudia. Ikusizko arteetako erakusketa-aretoak, diru-sarrera tartean, guztizko diru-sarreraren eta langileen (lanaldi eta urte osoko langileen baliokideak) arabera. 2015.



■ 100.000 € baino gutxiago ■ 100.000 € baino gehiago


1.8 Ikus-entzunezko industria

2015ean, 91 dira estatistikan sartu diren ekoizpen-etxeak, baina azterketa honetan 90 baino ez dira aztertzen, ETB azterketa honetan kanpoan utzi da, sektorearen baitan duen pisu nabarmenagatik eta berezitasunagatik.

Datuak ikusita, nabarmentzekoa da guztira diren 90 ekoizpen-etxeetatik diru-sarreraren % 62,2a eta enpleguaren % 51,3a 13ren eskutan biltzen dela, sektorearen % 14,4ren eskutan, hain zuzen ere. Ekoizpen-etxe handiak dira, bere langile kopuruaren batz bestekoak adierazten duen bezala, 25,7 langile enpresako.

2013arekin alderatuz gero, diru-sarrera gutxien duten enpresek pisu handiagoa dute sektorean agente kopuruari, diru-sarrerei eta langile kopuruari begiratuta; 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten ekoizpen-etxeetan langile kopuruaren batz bestekoa 1,6 zen 2013an eta 2,2 langilera igo 2015ean. (ikusi emaitza zehatzak eranskinaren **> 32. irudian**).

13. irudia. Ekoizpen-etxeak, diru-sarrera tarteetan, guztizko diru-sarreraren eta langileen (lanaldi eta urte osoko langileen baliokideak) arabera.2015.



■ 1.000.000 € baino gehiago
 ■ 500.001 €-tik 1.000.000 €-ra
 ■ 250.001 €-tik 500.000 €-ra
■ 100.000 €-tik 250.000 €-ra
 ■ 100.000 € baino gutxiago

2 Taula eranskina

2.1 Arte eszenikoetako ekoizleak

14. irudia. Arte eszenikoetako ekoizleak, diru-sarreraren, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (lanaldi eta urte osoko langileen baliokideak) arabera. 2011-2015.

	2011					2013					2015				
	Agenteak		Diru-sarrerak		Langileak	Agenteak		Diru-sarrerak		Langileak	Agenteak		Diru-sarrerak		Langileak
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
500.000 € baino	5	6,3	41,1	16,0	6,0	7	10,4	52,2	24,0	5,9	7	9,2	49,4	26,0	7,6
250.001 - 500.000 €	8	10,0	22,5	22,7	5,3	5	7,5	13,4	13,6	4,7	7	9,2	18,8	16,8	4,9
100.000 - 250.000 €	15	18,8	21,2	31,9	4,0	13	19,4	20,5	31,8	4,2	12	15,8	14,6	21,0	3,6
100.000 € baino gutxiago	52	65,0	15,1	29,4	1,1	42	62,7	13,9	30,6	1,3	50	65,8	17,2	36,1	1,5
Guztira	80	100,0	100,0	100,0	2,3	67	100,0	100,0	100,0	2,6	76	100,0	100,0	100,0	2,7

15. irudia. Arte eszenikoetako ekoizleak, diru-sarreraren eta egindako ekoizpenen arabera. 2011-2015.

	2011				2013				2015			
	Agenteak		Egindako ekoizpenak		Agenteak		Egindako ekoizpenak		Agenteak		Egindako ekoizpenak	
	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%
500.000 € baino	5	6,3	17	15,3	7	10,4	18	18,7	7	9,2	20	16,9
250.001 - 500.000 €	8	10,0	13	11,7	5	7,5	9	9,3	7	9,2	12	10,2
100.000 - 250.000 €	15	18,8	13	11,7	13	19,4	22	22,7	12	15,8	19	16,1
100.000 € baino gutxiago	52	65,0	68	61,3	42	62,7	47	49,3	50	65,8	67	56,8
Guztira	80	100,0	111	100,0	67	100,0	96	100,0	76	100,0	118	100,0

2.2_Arte eszenikoetako programatzaileak

16. irudia. Arte eszenikoak programatzen dituzten aretoak, diru-sarreraren, guztizko diru-sarrera tarteen eta ikusleen arabera. 2011-2015.

	2011				2013				2015			
	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
1.000.000 € baino gehiago	5	6,6	65,4	55,3	6	7,6	59,8	54,7	4	4,9	49,9	38,8
250.001 - 1.000.000 €	3	3,9	5,1	4,8	4	5,0	9,3	7,4	10	12,2	22,8	22,3
100.000 - 250.000 €	19	25,0	14,9	16,2	26	32,9	19,4	20,1	26	31,7	17,8	23,2
100.000 € baino gutxiago	49	64,5	14,6	23,8	43	54,4	11,5	17,8	42	51,2	9,5	15,6
Guztira	76	100,0	100,0	100,0	79	100,0	100,0	100,0	82	100,0	100,0	100,0

17. irudia. Arte eszenikoak programatzen dituzten aretoak, bertaratutako ikusle-tarteen arabera. 2011-2015.

	2011		2013		2015	
	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%
30.000 ikusle baino gehiago	5	6,6	65,4	55,3	6	7,6
10.001 - 30.000 ikusle	5	6,6	5	6,3	10	12,2
5.000 - 10.000 ikusle	10	13,2	17	21,5	131	5,9
5.000 ikusle baino gutxiago	56	73,7	51	64,6	54	65,9
Guztira	76	100,0	79	100,0	82	100,0

18. irudia. Arte eszenikoetako jaialdiak, diru-sarrera tarten eta guztizko diru-sarreraren ehunekoaren arabera. 2011-2015.

	2011			2013			2015		
	Agenteak		Diru-sarrerak	Agenteak		Diru-sarrerak	Agenteak		Diru-sarrerak
	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%
250.000 € baino gehiago	8	24,2	85,0	3	9,1	77,5	6	17,1	79,0
100.000 - 250.000 €	10	30,3	9,8	11	33,3	14,5	8	22,9	11,8
100.000 € baino gutxiago	15	45,5	5,2	19	57,6	7,9	21	60,0	9,3
Guztira	33	100,0	100,0	33	100,0	100,0	35	100,0	100,0

2.3 Argitaletxeak

19. irudia. Argitaletxeak, liburu-salmenta diru-sarreraren eta lanaldi eta urte osoko langile baliokideen arabera. 2011-2015.

	2011					2013					2015				
	Agenteak		Liburu salmenta diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Liburu salmenta diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Liburu salmenta diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
1.000.000 € baino gehiago	12	31,6	86,7	69,5	9,7	8	21,1	75,5	52,4	8,3	11	26,2	86,3	62,8	9,6
500.001 - 1.000.000 €	3	7,9	8,0	6,8	3,8	6	15,8	15,6	20,9	4,4	4	9,5	7,7	11,7	4,9
250.001 - 500.000 €	4	10,5	2,7	7,1	3,0	3	7,8	4,1	7,5	3,1	2	4,8	2,0	4,2	3,5
100.000 - 250.000 €	6	15,8	1,2	4,9	1,4	7	18,4	2,6	10,9	2,0	4	9,5	1,6	4,6	1,9
100.000 € baino gutxiago	13	34,2	1,5	11,7	1,5	14	36,8	2,2	8,4	0,8	21	50,0	2,4	16,8	1,3
Guztira	38	100,0	100,0	100,0	4,4	38	100,0	100,0	100,0	3,3	42	100,0	100,0	100,0	4,0

2.4 Liburu-dendak

20. irudia. Liburu-dendak, tipologiaren, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta lanaldi eta urte osoko langile baliokideen arabera. 2011-2015.

	2011					2013					2015				
	Agenteak		Liburu salmenta diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Liburu salmenta diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Liburu salmenta diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
kateetako kide diren liburu-dendak	27	27,0	63,2	52,2	6,0	26	27,1	58,3	45,2	4,6	19	17,4	49,1	36,4	5,8
Liburu-denda independenteak	73	73,0	36,8	47,8	2,1	70	72,9	41,7	54,8	2,1	90	82,6	50,9	63,6	2,1
Guztira	100	100,0	100,0	100,0	3,1	96	100,0	100,0	100,0	2,7	109	100,0	100,0	100,0	2,8

21. irudia. Liburu-dendak, diru-sarreraren eta liburu-salmentagatiko diru-sarreraren arabera. 2011-2015.

	2011			2013			2015		
	Agenteak		liburu-salmenta diru-sarrerak	Agenteak		liburu-salmenta diru-sarrerak	Agenteak		liburu-salmenta diru-sarrerak
	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%
1.000.000 € baino gehiago	16	16,0	56,4	12	12,5	49,9	13	11,9	48,3
500.001 - 1.000.000 €	13	13,0	16,9	12	12,5	17,8	17	15,6	19,0
250.001 - 500.000 €	29	29,0	16,1	27	28,1	18,1	31	28,4	19,6
250.000 € baino gutxiago	42	42,0	10,7	45	46,9	14,2	48	44,0	13,1
Guztira	100	100,0	100,0	96	100,0	100,0	109	100,0	100,0

22. irudia. Liburu-dendak, diru-sarrera eta liburu-denda tipologiaren arabera. 2011-2015.

	2011				2013				2015			
	Agenteak		Kateetako kide diren liburu-dendak	Liburu-denda independenteak	Agenteak		Kateetako kide diren liburu-dendak	Liburu-denda independenteak	Agenteak		Kateetako kide diren liburu-dendak	Liburu-denda independenteak
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
1.000.000 € baino gehiago	16	16,0	81,3	18,8	12	12,5	83,3	16,7	13	11,9	57,9	2,2
500.001 - 1.000.000 €	13	13,0	30,8	69,2	12	12,5	25,0	75,0	17	15,6	10,5	16,7
250.001 - 500.000 €	29	29,0	27,6	72,4	27	28,1	33,3	66,7	31	28,4	26,3	28,9
250.000 € baino gutxiago	42	42,0	4,8	95,2	45	46,9	8,9	91,1	48	44,0	5,3	52,2
Guztira	100	100,0	27,6	72,4	96	100,0	27,1	72,9	109	100,0	100,0	100,0

2.5_Musika programatzaileak

23. irudia. Programatzaile publikoak, diru-sarrera tartearen, guztizko diru-sarreraren eta ikusleen arabera. 2011-2015.

	2011				2013				2015			
	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
1.000.000 € baino gehiago	6	8,8	60,0	41,6	5	7,0	52,5	28,3	5	7,2	53,8	28,6
250.001 - 1.000.000 €	4	5,9	10,2	19,9	7	9,9	16,6	37,9	6	8,7	15,2	37,0
100.000 - 250.000 €	22	32,4	18,8	26,8	18	25,4	20,0	20,9	20	29,0	20,0	24,7
100.000 € baino gutxiago	36	52,9	11,0	11,7	41	57,7	11,0	12,9	38	55,1	11,1	9,7
Guztira	68	100,0	100,0	100,0	71	100,0	100,0	100,0	69	100,0	100,0	100,0

24. irudia. Programatzaile publikoak, ikusle tarteen arabera eta guztizko ikusleen ehunekoaren arabera. 2011-2015.

	2011			2013			2015		
	Agenteak		Ikusleak	Agenteak		Ikusleak	Agenteak		Ikusleak
	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%
100.000 ikusle baino gehiago	4	5,9	42,4	3	4,2	41,4	2	2,9	38,3
50.001 - 100.000 ikusle	5	7,4	24,0	4	5,6	19,9	4	5,8	23,8
10.001 - 50.000 ikusle	18	26,5	22,3	20	28,2	27,0	17	24,6	26,0
5.000 - 10.000 ikusle	10	14,7	5,0	10	14,1	4,9	11	15,9	5,6
5.000 ikusle baino gutxiago	31	45,6	6,3	34	47,9	6,7	35	50,7	6,2
Guztira	68	100,0	100,0	71	100,0	100,0	69	100,0	100,0

25. irudia. Sustatzaile pribatuak, diru-sarrera tarteen eta guztizko diru-sarreraren ehunekoaren arabera. 2011-2015.

	2011			2013			2015		
	Agenteak		Diru-sarrerak	Agenteak		Diru-sarrerak	Agenteak		Diru-sarrerak
	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%
900.000 € baino gehiago	7	24,1	81,4	4	14,3	76,3	6	28,6	87,5
100.000 - 900.000 €	7	24,1	14,9	13	46,4	20,8	10	47,6	12,0
100.000 € baino gutxiago	15	51,7	3,7	11	9,3	2,9	5	23,8	0,5
Guztira	29	100,0	100,0	28	100,0	100,0	21	100,0	100,0

26. irudia. Kontzertu-aretoak, diru-sarrera tarteetan eta guztizko ikusleen ehunekoen arabera. 2011-2015.

	2011				2013				2015			
	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
250.000 € baino gehiago	6	24,0	74,7	52,4	5	21,7	60,2	44,9	4	21,1	70,3	25,8
100.000 - 250.000 €	5	20,0	18,0	20,8	7	30,4	32,1	33,7	4	21,1	14,4	11,0
100.000 € baino gutxiago	14	56,0	7,3	26,8	11	47,8	7,7	21,4	11	57,9	15,3	63,2
Guztira	25	100,0	100,0	100,0	23	100,0	100,0	100,0	19	100,0	100,0	100,0

27. irudia. Kontzertu-aretoak, ikusle-tarteetan eta guztizko ikusleen ehunekoen arabera. 2011-2015.

	2011			2013			2015		
	Agenteak		Ikusleak	Agenteak		Ikusleak	Agenteak		Ikusleak
	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%
10.000 ikusle baino gehiago	9	36,0	70,3	7	30,4	67,6	10	52,6	86,0
5.000 - 10.000 ikusle	5	20,0	13,4	4	17,4	16,8	5	26,3	10,8
5.000 ikusle baino gutxiago	11	44,0	16,2	12	52,2	15,6	4	21,1	3,2
Guztira	25	100,0	100,0	23	100,0	100,0	19	100,0	100,0

2.6_Disko-saltokiak

28. irudia. Disko-saltokiak, diru-sarrerak, eta langileak (lanaldi eta urte osoko langileen baliokideak) saltoki-tipologiaren arabera. 2011-2015.

	2011					2013					2015				
	Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
Kateetako kide diren saltokiak	15	57,7	77,4	68,1	1,6	13	61,9	75,5	67,8	1,5	11	55,0	76,2	54,3	1,0
Saltoki independenteak	11	42,3	22,6	31,9	1,0	8	38,1	24,5	32,2	1,2	9	45,0	23,8	45,7	1,1
Guztira	26	100,0	100,0	100,0	1,3	21	100,0	100,0	100,0	1,4	20	100,0	100,0	100,0	1,1

29. irudia. Disko-saltokiak, diru-sarrera tartearen eta saltoki-tipologiaren arabera. 2011-2015.

	2011				2013				2015			
	Agenteak		Kateetako kide direnak	Independentea	Agenteak		Kateetako kide direnak	Independentea	Agenteak		Kateetako kide direnak	Independentea
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
100.000 € baino gehiago	10	38,5	70,0	30,0	8	38,1	75,0	25,0	11	55,0	45,5	22,2
100.000 € baino gutxiago	16	61,5	50,0	50,0	13	61,9	53,8	46,2	9	45,0	54,5	77,8
Guztira	26	100,0	57,7	42,3	21	100,0	61,9	38,1	20	100,0	100,0	100,0

2.7_ Ikusizko arteetako galeriak eta erakusketaretoak

30. irudia. Galeriak, diru-sarrera tarteetan, guztizko diru-sarreraren eta langileen (lanaldi eta urte osoko langileen baliokideak) arabera. 2011-2015.

	2011					2013					2015				
	Agenteak		Salmenta diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Salmenta diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Salmenta diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
100.000 € baino gehiago	6	23,1	68,2	36,6	2,3	5	23,8	67,1	36,9	2,3	5	27,8	77,7	44,1	2,6
100.000 € baino gutxiago	20	76,9	31,8	63,4	1,2	16	76,2	32,9	63,1	1,2	13	72,2	22,3	55,9	1,3
Guztira	26	100,0	100,0	100,0	1,4	21	100,0	100,0	100,0	1,5	18	100,0	100,0	100,0	1,6

31. irudia. Ikusizko arteen erakusketa-aretoak, diru-sarrera tarteetan, guztizko diru-sarreraren eta langileen (lanaldi eta urte osoko langileen baliokideak) arabera. 2011-2015.

	2011					2013					2015				
	Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
100.000 € baino gehiago	11	21,6	84,2	62,2	2,8	7	18,4	87,5	55,2	2,8	10	33,3	84,9	80,0	2,6
100.000 € baino gutxiago	40	78,4	15,8	37,7	0,5	31	81,6	12,5	44,8	0,5	20	66,7	15,1	20,0	0,3
Guztira	51	100,0	100,0	100,0	1,0	38	100,0	100,0	100,0	0,9	30	100,0	100,0	100,0	1,1

2.8_ Ikus-entzunezko industria

32. irudia. Ekoizpen-etxeak, diru-sarrera tarte, gutzizkoarekiko diru-sarrera eta langileen (lanaldi eta urte osoko langileen baliokideak) arabera. 2011-2015.

	2011					2013					2015				
	Agenteak		Diru-sarrerak		Langileak	Agenteak		Diru-sarrerak		Langileak	Agenteak		Diru-sarrerak		Langileak
	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa	Maizt.	%	%	%	Batez bestekoa
1.000.000 € baino gehiago	15	19,2	67,3	60,9	29,2	10	13,5	58,9	56,4	32,9	13	14,4	62,2	51,3	25,7
500.001 - 1.000.000 €	13	16,7	16,0	14,7	8,1	10	13,5	18,1	14,3	8,4	11	12,2	17,5	11,5	6,8
250.001 - 500.000 €	22	28,2	12,2	15,9	5,2	12	16,2	10,3	11,9	5,8	9	10,0	5,9	14,2	10,3
100.000 - 250.000 €	10	12,8	3,0	4,0	2,9	22	29,7	10,3	11,9	3,2	30	33,3	12,2	13,9	3,0
100.000 € baino gutxiago	18	23,1	1,5	4,5	1,8	20	27,0	2,5	5,6	1,6	27	30,0	2,3	9,1	2,2
Guztira	78	100,0	100,0	100,0	9,2	74	100,0	100,0	100,0	7,9	90	100,0	100,0	100,0	7,2

Oharra: ETBko datuak ez dira kontuan hartu



Agenteen profilak **2015** arteen eta kultura industrien estatistika



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA